



NOLA EGIN KLIPMETRAJE BAT

Osagaiak:

- Zure ikuspuntuak mundua alda dezake posterra.
- Klipmetrajeen webgunea: www.clipmetrajesmanosunidas.org

Aurretiazko oharra:

- Garrantzitsua: gela bakoitzak nahi adina klipmetraje aurkez ditzake.
- Sartu klipmetrajeen webgunean, ikasleek klipmetrajeen adibideak ikus ditzaten eta VII. edizio honi buruzko informazio zabala eskura dezaten.
- Animatu ikasleak elikagaiak alferrik botatzeak eragiten duen injustizia klipmetraje baten bidez salatzea. Aurrez egindako jardueren emaitza logikoa izango da.
- Klipmetrajea egiteko orduan, alderdi batzuk garbi izan behar dituzte:
 - Inplikatu egin behar dira proiektuan. Oso lan garrantzitsua da elikagaiak alferrik botatzeak eragiten duen injustizia salatzea.
 - Proiektuak helburua ondo bete dezan, mezuak argia izan behar du, eta bihotzera heltzeko modukoa.

Prestaera:

- Jarri posterra gelan, ondo ikusten den leku batean, eta errepasatu blokeetako bakoitza.

Sortu

- Gidoia lantzeko ideiak sortzeko, egokia izan daiteke ikasleak taldetan banatzea, denek izan dezaten ekarpenak egiteko aukera.
Gidoi on bat lantzeko, funtsezkoa da gaien sakontzea. Oso egokia iruditzen zaigu **Gosearen arazoa** dokumentua irakurtzea.
- Gidoia lantzeko ideiak 3. jardueran sortutako titularretatik atera ditzakete, edota 6. jarduerako konpromiso-ekintzetatik.
- Fase honetan, gogoan izan behar dira laukitxoetan jasotako ideiak:



Las personas empobrecidas también pueden ser ricas en iniciativa, valentía, ideas... no las reflejes como si no fuese así

Askotan, inolako ekimenik gabeko pertsona pasibo gisa islatzen ditugu behartsuak: hori ez da zuzena.

Idea hori sendotzeko, lagungarria izan daiteke **Killari eta altxorra** kontakizuna irakurtzea.

Aintzat hartu beharrekoa da hori, gidoia lantzeko orduan. Elikatzea eskubide bat da; munduan ezin dira pertsona batzuk besteoi «sobratzen» zaigunarekin bizi.

En Manos Unidas defendemos la Justicia, no damos limosnas

Recuerda que tod@s formamos parte de un sistema injusto y podemos involucrarnos para cambiarlo

Guztiok daukagu egoerak aldatzeko gaitasuna. Sinetsi egin behar dugu, ordea, eta gaitasun hori landu. Klipmetrajeen bidez, jende askorengana zabal dezakegu egoera aldatzeko beharraren mezua. Gogora ezazue *Idazmakina* irakurgaia.

«Ekin dezagun» jardueran (6. jarduera), gure inguru hurbilean jarduteko ekintza zehatz batzuk proposatu dituzte ikasleek. Klipmetrajeen bidez, pauso bat gehiago emango dute: mezua askoz ere pertsona gehiagorengana iristeko tresna bikainak dira klipmetrajeak; horrela, katean osatzen dugun mailan askoz ere erantzukizun handiagoa hartuko dugu.

Grabatu

- Fase hau funtsezkoa da: ikasleen klipmetrajeak izango dira haren fruitu.
- Hauxe da gure ikuspuntua azaltzeko unea; gidoian hitzen bidez jaso duguna irudien bidez erakustekoa.
- Klipmetrajea grabatzea talde-lana da. Bakoitzak bere ardurak hartu behar ditu, eta denek elkarlanean aritu behar dute, elkarri laguntzen; ilusioz eta umore onean, betiere.

Konpromisoak hartu

- Faseetan azkena da hau, baina ez aurrekoak baino garrantzi gutxiagokoa. Orain arte egindako lana funtsezkoa da; orain, ordea, lau haizeetara zabaldu behar dugu egindako guztia! Horrela, jende gehiagorengana iritsiko da mezua, eta haiek ere sentibilizatzea eta inplikatzeko lortuko dugu.